



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Joseba Sarrionandia eta Ines Osinaga izango dira astelehenean Arriaga Antzokian musika eta literatura uztartzen dituen emanaldia eskaintzeko

- *Olatu arteko txalupa arraroa* ikuskizunean Sarrionandiak Kuban sortutako eta Osinagak musikaz jantzitako testuak entzun eta ezagutzeko aukera izango dute ikusleek.

Bilbo, 2022ko urriaren 13a. Arriaga Antzokiak eta Bilboko Udaleko Euskara Sailak bultzatutako "Literatura eta Musika Euskaraz" zikloa Arriagako foyerrera itzuliko da datorren astelehenean, urriaren 17an, 19:30etik aurrera. Denboraldi honetako aurreneko emanaldiak, gainera, euskal kulturaren eta gizartearen erreferente ukaezina den **Joseba Sarrionandia** ekarriko du gurera, aldamenean **Ines Osinaga** musikaria izango duela.

Musika eta literatura uztartzen dituen *Olatu arteko txalupa arraroa* aurkeztuko dute Sarrionandiak eta Osinagak. Ikuskizuna osatzen duten letrak, Joseba Sarrionandiak sortu zituen Kuban duela ia hamar urte. Hitzei, musika jarri zien Gose taldeko Osinagak eta *Gosariak* proiektua gauzatu zuten. Orain, idazlea Euskal Herrian dela, letra horien jatorria eta zergatia azalduko ditu Osinagaren musikaz lagunduta.

Olatu arteko txalupa arraroa emanaldiak dozena bat testu biltzen ditu eta bidaia luzeko kantuak dira, edo, hobeto esanda, kantuak dira bidaia. Izan ere, Habanan sortutako testuak, Atlantikoa zeharkatu zuten eta Euskal Herrira heldu ziren "eskuz esku, konplizez konplize, sekretu bat konpartitzen dutenen artean sortzen den zirrara hori lagun". Amaia Apaolaza zegoen artean, bere hutsunea utzi zuen. Testuak Habanan jaio eta Euskal Herrian hazi ziren kantu bilakatzeko, tabako, ardo ta kanelaz. Orain, urteak pasa direla, eta gauzak aldatu direla, idazle izoztua Euskal Herrian da, eta, kantuak hartu dituzte berriro esku artean, Arriaga Antzokiko foyerrak eskaintzen duen giro intimistan dastatzera emateko.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus